

MUTRIKUKO KLIMA ETA ENERGIAREN TOKIKO PLANA



HELBURU NAGUSIAK

- **2030 urtera begirako tokiko plana lantzea**, udalaren eskumenekin bat datorrena.
- Udalerrriaren **abiapuntuko egoera ezagutzea**, klima-aldaketa arintzearen eta egokitzapenaren ikuspegitik.
- Energia eta klimaren baitan dagoen **legedia betetzen laguntzea**.
- Udalari **tresna estrategiko** bat ematea arintze- eta egokitze-neurriak planifikatzeko eta sektoreen emisioen sorrerari eta diagnostiko-fasean identifikatzen diren inpaktu-kateei erantzuteko.
- Mutrikuko Udalean **gobernantza klimatikoaren oinarriak** ezartzea (klimaren aldeko maila anitzeko gobernantza).
- **Erronka klimatikoa partekatua** izan dadin, elkarte-sarearen, hezkuntza-komunitatearen, enpresa-sektoreen eta, oro har, herritar guztien artean **gizarteratzea eta herritarren partaidetza** ahalbidetzea.



NOLA OSATU DA EKINTZA-PLANA?

- ✓ **Diagnostikoa.**
- ✓ **Erreferentziazko lege-esparrua:** energia trantsizioarekin eta klima-aldaketarekin zerikusia duten arloetan udalei zuzendutako betebeharrak aztertzea.
- ✓ **Sektore ezberdinekin antolatutako elkarrizketa-saioak:** aurrez aurrekoak (eragile ekonomikoekin –3 eragile- bat eta beste bat gizarte-eragileekin –8 eragile-) eta online elkarrizketak (5 elkarrizketa).
- ✓ **Sektore ezberdinetako ordezkariekin antolatuko podcastak:** bost elkarrizketa antolatu eta grabatzea (udal web-orrian eskuragarri).
- ✓ **Online galdetegiak:** 15 herritarrek parte hartu dute.



DIAGNOSTIKOA

- ✓ Testuinguru klimatiko eta energetikoaren azalpena.
- ✓ Arintzeari lotutako atala.
- ✓ Egokitzapenaari buruzko atala.



UDALERRIKO
ENERGIA KONTSUMOAK eta
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
EKOIZPENA

➤ ELEKTRIZITATE KONTSUMOA

2018-2020 aldian elektrizitate-kontsumoek behera egiten dute 2015eko datuetatik behera geratuz. aldiz, azken urtean, elektrizitate-kontsumoak 2015eko datuak berreskuratzen ditu.


➤ ERREGAIEN KONTSUMOA (GAS NATURALA, GASOLIOA, PGL)

2019-2021 aldian erregaien kontsumoek nabarmen gora egin dutela esan dezakegu (% 33). Honen arrazoia, 2019. urtean 40 etxebizitza berri eta Pescados Llorente enpresa irekitzean egon daiteke.


➤ ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

2021 urtean % 28 handitu da energia berriztagarrien ekoizpena, batik bat eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizpen igoera nabarmen bategatik.


MUTRIKUKO ELEKTRIZITATE-KONTSUMOAREN BILAKAERA
(2015-2021)



MUTRIKUKO ERREGAI-KONTSUMOAREN BILAKAERA
(2015-2021)



MUTRIKUKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENAREN BILAKAERA
(2015-2021)




UDALERRIKO
BEG
ISURKETAK

Mutrikun BEG isurketen erantzule nagusia garraioa da, askogatik, isurketa guztien % 65 ordezkatzuz.

Beraz, BEG isurketen beherakada hori, batez ere, garraio sektoreak izandako isurketen beherakadaren ondorio da (2019tik 2020rako beherakadan pandemiak eragina izan zuen eta 2021ean, gainera, garraioaren emisio faktoreak bioerregaiak aintzat hartzen hasi ziren).


.



UDALEKO ENERGIA KONTSUMOAK

➤ UDALAREN ENERGIA KONTSUMOAK


2015-2023 aldian elektrizitate-kontsumoa % 7 hazi da, zehazki 65.805 kWh, eta gas naturalarena ere % 6 igo da, 21.349 kWh hain zuzen. Gasolioaren kontsumoa 2019-2023 aldian % 13an jaitsi da, zehazki, 18.737 kWh.



UDALEKO
BEG
ISURKETAK

➤ UDALAREN BEG ISURKETAK - UDAL ERAIKINAK

Udal eraikinetan 2015– 2023 aldian gas naturalaren kontsumoari loturiko isurketak % 38an hazi dira, eta 2015-2019 aldian (elektrizitatea oraindik iturri berriztagarriena izan ez den aldian), aldiz, elektrizitatea % 97an jaitsi da. Eraikinetan gasolioaren kontsumoak eragindako isurketak 2021 urtetik erregistratu dira eta hauek gora egin dute (% 29ko hazkundera).



KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

TENPERATURAREN JOERA HISTORIKOA ETA KLIMA PROIEKZIOAK:



- 1971-2015 artean batez besteko tenperatura 1,7 °C-tan igo da.
- Neurrik hartu gabe, mende amaierarako batez besteko tenperatura 3,4 °C-tan igotzea aurreikusten da, 1971 urtea oinarri hartuta.
- Joera- eta muturreko-aldagaiek tenperatura batez bestekoaren igoera eta bero-bolada eta gau tropikal egunen areagotzea aurreikusten dute.


PREZIPITAZIOEN JOERA HISTORIKOA ETA KLIMA PROIEKZIOAK:

- Bataz besteko prezipitazioaren bilakaera historikoa (1971-2010) beherakorra izan da (4,5 mm/egun-etik 3,6 mm/egun-era jaitsi da).
- Mende amaierarako batez besteko prezipitazioa % 8 murriztea espero da (3,7 mm/egun-etik 3,4 mm/egun-era).
- Joera- eta muturreko-aldagaiek euria egiten duen egun kopuruaren jaitsiera eta prezipitazio biziko eta oso biziko egunen gutxitzea aurreikusten dute, lehorte egunak areagotuz, eta era berean euri jasa bortitzak areagotuz.



KLIMA ALDAKETAREN AURREKO KALTEBERATASUNA ETA ARRISKUA

- Bero-boladen inpaktua giza osasunean.
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.
- Itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.
- Lehortek areagotzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan (batik bat nekazaritza eta abeltzaintzan).



MUTRIKUKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA (MKEP)

Honako egitura izango du:

- 2050 urtera begirako ikuspegia eta 2030 urtera begirako epe motzeko ikuspegia.
- Helmuga energetiko eta klimatikoak (helburu neurgarriak).
- Helburu estrategikoak, Jarduera-programak eta ekintzak.
- Ekintza.-planaren inpaktu globalaren kalkulua.



MKEP-HELBURU NAGUSIAK

- **2030 urtera begirako tokiko plana lantzea**, udalaren eskumenekin bat datorrena.
- Udalerriaren **abiapuntuko egoera ezagutzea**, klima-aldaketa arintzearen eta egokitzapenaren ikuspegitik.
- Energia eta klimaren baitan dagoen **legedia betetzen laguntzea**.
- Udalari **tresna estrategiko** bat ematea arintze- eta egokitze-neurriak planifikatzeko eta sektoreen emisioen sorrerari eta diagnostiko-fasean identifikatzen diren inpaktukateei erantzuteko.
- Mutrikuko Udalean **gobernantza klimatikoaren oinarriak** ezartzea (klimaren aldeko maila anitzeko gobernantza).
- **Erronka klimatikoa partekatua** izan dadin, elkarte-sarearen, hezkuntza-komunitatearen, enpresa-sektoreen eta, oro har, herritar guztien artean gizarteratzea eta herritarren partaidetza ahalbidetzea.

MKEP-aren ARINTZEAREN ALORREKO HELMUGA KUANTITATIBO NAGUSIAK:

2030 URTERAKO UDAL AURREZPEN ENERGETIKOA: % 35

2050 ERAKO UDAL AURREZPEN ENERGETIKOA: % 60

2030 URTERA BEGIRA UDAL AUTOKONTSUMORA BIDERATUTAKO ENERGIA

BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA: % 32

B KALIFIKAZIOA EZ DUTEN UDAL ERAIKINEN % 40AK GUTXIENEZ KALIFIKAZIO

HORI LORTZEA 2030 URTERAKO


HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. HE: UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN
2. HE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA
3. HE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA
4. HE: MUTRIKUKO HERRIA ETA HERRITARRAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEIA
5. HE: MUTRIKUKO INGURUNE NATURALAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN ZAINZA
6. HE: UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEIA
7. HE: KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA, KOMUNIKAZIOA, FORMAKUNTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA, ERAGILE GUZTIAK AHALDUNTZEKO.

EKINTZAK

GUZTIRA 99 EKINTZA:

EKINTZAK LERRO ESTRATEGIKOEN ARABERA



■ LE1: UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN

■ LE2: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA

■ LE3: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA

■ LE4: MUTRIKUKO HERRIA ETA HERRITARRAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEA

■ LE5: MUTRIKUKO INGURUNE NATURALAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN ZAINZA

■ LE6: UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEA

■ LE7: KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA, KOMUNIKAZIOA, FORMAKUNTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA, ERAGILE GUZTIAK AHALDUNTZEKO.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

15 ERANTZUN (13 EUSKARAZ ETA 2 GAZTELERAZ)

EZAGUTZA

Herritarrek klima-alaketari buruz dakitenari gehien hurbiltzen dena:

- **Lurraren prozesu naturala da eta baita giza jarduerak eragindako prozesua da:** 9 erantzun.
- **Giza jarduerak eragindako prozesua da:** 6 erantzun.

Baieztapen hauetatik herritarrek klima-alaketara buruz dakitenari gehien hurbiltzen dena:

- **Klima-aldaketa egungo arazoa da:** 12 erantzun.
- Klima-aldaketa arazoa izango da etorkizunean: 2 erantzun
- Klima-aldaketa ez da arazo bat: 1 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

GARRANTZIA

Klima-alaketak Lurra planetan aldaketak eragiten ari den edo eragingo dituen inguruko herritarren usteak:

- **Bai, aldaketa handiak eragingo ditu, eta aldaketa horiek inpaktu larriak sortuko dituzte:** 13 erantzun.

Klima-alaketaren aurrean herritarrek adierazi duten kezkatze-maila:

- **Nahiko kezkatuta nago:** 8 erantzun
- **Oso kezkatuta nago:** 6 erantzun

Klima-alaketa arintzea kontzeptuan herritarren jakintza-maila:

- **Bai eta hura bultzatzeko zer egin behar den ezagutzen dut:** 10 erantzun.

Klima-alaketara egokitzea kontzeptuan herritarren jakintza-maila:

- **Bai eta hura lortzeko zer egin behar den ezagutzen dut:** 7 erantzun.
- **Bai, ezagutzen dut kontzeptua, baina ez dakit nola lortzen den:** 6 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

KLIMA-ALDAKETA ARINTZEA

Udalak lehenetsi beharreko arloak (gehien aukeratu direnak): 10-12 erantzun jaso dituztenak:

- 12 erantzun. **Eskualdeko herrien arteko garraio publikoko aukerak zabaltzeko edo hobetzeko eskatzea (eskaintza hobetzea)**
- 11 erantzun. **Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera gutxitzeko ekintzak aurrera eramatea.**
- 11 erantzun. **Herritar guztiei zuzendutako hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, energiaren kudeaketa arduratsuaren eta klima-aldaketaren inguruan.**
- 10 erantzun: **Oinez eta bizikletaz mugitzeko erraztasunak eskaintzea (herri barruko eta herrien arteko loturak, oinezko bide seguruak, bizikleten alokairu sistema, eta abar)**

Gainerako aukerek erantzun kopuru txikiagoa jaso dute.

Eman diren bestelako erantzunak:

- **Udalaren jabetzako teilatuetan eguzki plakak jartzea eta kontsumo partekatura bideratzea (2 erantzun)**

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

1. HELBURUA: Energia aurrezte eta eraginkortasuna sustatzea:

- **Sektore ezberdinei zuzendutako prestakuntza-saioak eta sentsibilizazio-ekintzak antolatzea:** 11 erantzun
- **Etxebizitzak birgaitzeko baliabideak eskaintzea** (informazioa, dirulaguntzak, eta abar): 10 erantzun
- Udalerriko enpresetan eta saltoki txikietan energia kudeaketarako tresnak eskuragarri jartzea eta herritarrengana iristeko komunikazioa indartzea, beraien energia-beharrak aztertzeako aukerak erraztea eta irtenbide komunak bilatzea nahiz garatzen laguntzea: 9 erantzun

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

2. HELBURUA: Tokiko energia sorkuntza berriztagarria sustatzea.

- **Energia berriztagarrien komunitateak sustatu eta udala halako ekimenetan bidelagun izatea:** 12 erantzun
- **Udal eraikinetan energia berriztagarrien hedapena bultzatzea, eraikin bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz, bakoitzean interesgarria den teknologia zehatza ezartzeko:** 12 erantzun
- Etxebizitzetan edo bestelako establezimenduetan (enpresetan, adibidez) energia % 100 berriztagarria erosteko aukeren berri ematea: 9 erantzun.
- Herriko sektore ezberdinetan energia berriztagarrietan oinarritutako kontsumo-eredu ezberdinen berri ematea (autokontsumoa, kontsumo partekatua, eta abar): 8 erantzun.
- Udalak energia elektrikoa zein termikoa biltegitratzearekin lotutako proiektuak sustatu eta bultzatzea herritarrentzat: 6 erantzun

Beste erantzunak: **landa eremuetako etxebizitzei bultzada eman, horietan ere energia berriztagarriak sustatuz.**

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

3. HELBURUA: Mugikortasun jasangarria bultzatzea, garraio publikoa eta motorrik gabeko mugikortasun-moduak erabiltzean oinarritutakoa.

- **Garraio publikoaren aldeko udal apustua sendotu, lanerako, ikasketa guneetarako eta hiriguneetarako loturak ahalbidetzeko bidea eginez eskumena duten erakundeekin elkarlanean:** 13 erantzun
- **Bidegorri sarea zabaltzeko aukerak aztertu eskumena duten erakundeekin elkarlanean:** 10 erantzun.
- Herri barruko mugikortasunean oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko eta kotxeari mugak jartzeko neurri ezberdinak aztertu eta martxan jarri: 8 erantzun.
- Udalerriko gune ezberdinetara iristeko dauden aldapak ekidin eta irisgarritasuna bermatzeko igogailu berrien ezarpena aztertu: 8 erantzun
- Garraio partekatua sustatu bai herritarren bai udaleko langileen artean: 7 erantzun

Pertsona bakarrak erantzun du ibilgailu elektrikoaren aldeko sustapen neurriak martxan jarri beharko liratekeela (karga-puntuak, aparkatzeko gune zehatzak ibilgailu hauentzat, etab.).

Beste erantzunak:

- **Euskotrenen Debako maiztasunak igotzea eskatu**
- **Udaletxeko ibilgailuak elektrikoak izatea, herritarren aurrean eredugarri izateko**

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

4. HELBURUA: Ekonomia zirkularra bultzatzea, hondakinen sorreraren prebentzioan oinarritutakoa.

- **Herrian bertan kudeatzen den hondakin organikoaren ehunekoa handitzeko asmoz, etxeko konposta indartzeko programa abian jarri eta auzo konposta guneen erabilera hobetzeko plangintza bat adostu:** 11 erantzun.
- **Herriko Ostalaritza (jatetxeak, tabernak) eta Turismo arloko eragileen inplikazioa bilatu ekonomia zirkularrari eta hondakinen prebentzio eta kudeaketari dagokionean** (elikadurari lotutako xahuketari lotuta, adibidez). 9 erantzun.
- Herriko gainerako sektoreekin ekonomia zirkularraren baitan garatu daitezkeen proiektuen inguruko lanketa bat abiarazi: 8 erantzun.
- Ikastetxeekin elkarlanean jangeletako janari-xahutzeari irtenbidea emateko ekimenak adostea eta martxan jartzea: 7 erantzun.
- Barreiatutako hondakinen arazoei aurre egiteko neurriak ezarri, mankomunitatearekin elkarlanean: 7 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA:

Klima-aldaketak Mutrikun eragin ditzakeen inpaktu ezberdinei herritarrek ematen dieten garrantzia:

- Ur eskuragarritasuna murriztea: garrantzia ertaina, ez dute uste lehentasunezkoa izango denik.
- Laboreetako galerak: handia
- **Baso-suteak areagotzea: oso handia.**
- Espezieak galtzea: handia
- Uholdeen ondorioz azpiegiturak kaltetzea: handia.
- Uholdeen ondorioz ondasun pertsonalak kaltetzea edo galtzea: handia.
- Gaixotasun infekziosoak eta arnas gaixotasunak (errinitisa edo asma, adibidez) ugaritzea: handia
- **Bero-kolpeak areagotzea: oso handia.**
- **Luiziak direla eta azpiegiturak kaltetzea (errepideak, eraikinak, eta abar.): oso handia.**

Bestelako erantzunak: Energia urritasuna eta energia lortu ahal izateko arazoak izatea, batez ere klase sozial baxueneko jendeak.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

Hauetatik, zein izan daitezke, zure ustez, klima-aldaketak gure herrian gehien kaltetu ditzakeen arloak? (erantzun gehien jaso dituztenak zerrendatu dira):

- **Osasuna (osasun arazoaren areagotzea):** 11 erantzun.
- **Azpiegiturak** (errepideak, uraren eskuragarritasunari lotutako azpiegiturak, hondartzako zerbitzuei lotutakoak, portuari lotutakoak, eta abar): 10 erantzun.
- Biodibertsitatea (bertako espezieen galera, kanpoko espezieen hedapena, etab.): 8 erantzun.
- Laborantzak (elikagaien galerarengatik): 7 erantzun.

Bestelako erantzunak: energia lortzeko arazoak izatea.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

Udalak lehenetsi beharreko arloak (gehien aukeratu direnak):

- **Hiri-hondakinen prebentzioan sakontzea, sortutako hondakinen kudeaketa hobetzea, horien birziklapena eta materia organikoaren konpostajea erraztea:** 11 erantzun
- **Lehen sektoreari (nekazaritza, abeltzantza eta arrantza) klima-baldintza berrietara egokitzen laguntzea, besteak beste nekazaritza-ekoizpen integratua, ekologikoa eta tokikoa sustatuz:** 10 erantzun
- **Garraio-azpiegituraren egoera hobetzea** (espaloiak, errepideak, bidegorriak, trenbideak): 10 erantzun
- Etxebizitzen birgaitze energetikoa bultzatzea: 9 erantzun
- Bertako espeziak baliatuz baso-berritzea areagotzea: 9 erantzun
- Ibaiertzeko eta itsasertzeko eremuetan gerta litezkeen uholdeen eragina aztertzea eta kalteberak diren eremuetan babes-elementuak sartzea: 9 erantzun
- Eremu berdeen eta basoen kontserbazioa, ugaritzea eta horien arteko lotura erraztea: 8 erantzun

Gainerako aukerek 5 erantzun edo gutxiago jaso dituzte.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

5. HELBURUA: Klima agertokietara egokituko diren hiri-plangintzak eta diseinuak sustatzea.

- **Itsas-mailaren igoerak herrian izan ditzakeen kalteak balioetsi eta hiri-azpiegiturak egokitu:** 11 erantzun
- **Hiri-azpiegitura berdea identifikatu, mantendu eta hedatzeko neurriak proposatu:** 9 erantzun
- Lehorte garaietan uraren kudeaketa egokia egiteko plana diseinatu: 8 erantzun.
- Ibai-uholdeak gertatzeko arrisku handiena duten udalerriko eremuak identifikatu eta euriteen kasuan martxan jartzeko protokoloa idatzi: 6 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

6. HELBURUA: Klima-aldaketak pertsonen osasunean eta ongizatean dituen eraginak murriztea.

- **Muturreko tenperaturen eta bero-boladen aurreikuspenen aurrean herria prestatu, udalerriko gune freskoak herritarrei ezagutaraziz eta konfort termikoa eskaini dezaketen udal-eraikinak herritarrei zabalduz:** 8 erantzun
- Herriko iturri publikoen mapa egin, egokitasuna aztertu eta hobekuntzak proposatu: 7 erantzun
- Klima-aldaketaren ondoriozko muturreko fenomenoek aurrean alerta goiztiarreko sistemak eta jarduketak eta informazio-komunikazioko protokoloak egitea: 7 erantzun
- Herriguneko kale estu eta freskoetarako irisgarritasuna bermatu: 6 erantzun
- Udalerriko mapa termikoa egitea puntu kritikoak identifikatu eta neurriak hartzeko: 5 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

7. HELBURUA: Natura ingurunea eta biodibertsitatea babestea.

- **Hondakin solidoak zein isuriak itsasora heldu ez daitezen neurriak hartu:** 12 erantzun
- **Udaleko lorezaintza zerbitzuan klima-aldaketara egokitzearekin eta biodibertsitatea zaintzearekin zerikusia duten irizpideak txertatu:** 9 erantzun
- Jabetza pribatua duten udalerriko baso-eremuak pixkanaka publiko egiteko plangintza bat landu, basoaren ustiapen jasangarria egiteko helburuarekin: 8 erantzun.
- Mutrikuko kostaldean itsasoko espezieak babesteko ekimenak aurrera eramanez") 7 erantzun.
- Lehorreko ekosistemen arteko konektibitate ekologikoa erraztu dezaketen proiektuak abiarazi eta horiek lagundu: 2 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

8. HELBURUA: Jarduera ekonomikoak babestea.

- **Udalerriko lehen sektorearekin batera sasoikoaren eta bertakoaren garrantzia landu eta herritarrentzako sentsibilizazio kanpainak egin:** 11 erantzun.
- **Mutrikuko ostalaritza sektorean herrian bertan ekoitzitako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu, garapen sailarekin batera:** 11 erantzun.
- Lehen sektoreko ekoizleei sostengua eman eta ekoizle berriak bultzatu eta babestu: 9 erantzun.
- Arrantza modu jasangarriagoen berri eman eta horiek bultzatu: 9 erantzun.

ONLINE GALDETEGIAREN EMAITZAK NAGUSIAK

9. HELBURUA: Udalerrriak klimarekin lotuta dituen erronkei erantzutea ahalbidetuko duen gobernantza-eredua antolatzea.

- **Udalak egiten dituen erosketetan edo kontratatzen dituen zerbitzuetan ingurumena babesteko ikuspegia barneratzea:** 11 erantzun.
- Gobernu-taldeko kideak eta oposizioko kideak klima-aldaketaren gaian sentsibilizatzea: 9 erantzun.
- Klima-aldaketarekin zerikusia duten arloetan udal langileak prestatzea (formakuntza arlo honetan): 7 erantzun.

10. HELBURUA: Herritarren parte-hartzea eta aktibazioa sustatzea.

- **Klima-aldaketaren arintzeari eta egokitzeari begira interesekoak diren herriko eremu edo puntu zehatzak babesteko boluntarioratza-ekintzak antolatzea** (erreka-garbiketak, landaketak, eta abar): 11 erantzun
- **Herritar guztiek energia trantsizioa eta klima-aldaketaren gainean duten ezagutza areagotzeko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatu:** 11 erantzun.
- Ekintza-planeko ekintza edo proiektu zehatzak herriko elkarte edo eragile (eskolak, ...) zehatzekin definitzea eta garatzea: 10 erantzun.



HARREMANETARAKO:

943 903 402 / 628 532 303

edurne@izadi21.eus